



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Asteartea
2007-12-04

V.URTEA 1.304.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu dute eskualdean

TOLOSALDEA Eskualdeko ikastetxe gehienetan festa giroan aldarrikatu zuten euskararen garrantzia

ATZERRITARRENTZAT Eskuliburua kaleratu du Tolosaldea Garatzenek euskaraz hitz egiteko 2



Samaniego ikastetxean Manttoren urtebetetzea ospatu zuten Euskararen Egunean. HITZA



Laskorain ikastolaren zuzendariak hitz egin zuten jaialdian. HITZA

Laskorain ikastolaren 40 urteak jaialdian irudikaturik

TOLOSA Usabal jendez lepo egon zen «emozioz» beteriko urteurren jaialdian 3

Abel Barriola: «Titinek txapela merezi du, bera izan da onena; oraindik ere bada zer zuzendu»

LEITZA Laugarren aldiz, garaipenaren atarian geratu da leitzarra, Lau T´erdiko Txapelketako finalean Titinen aurka 22-15 galduta 7

AHTri buruzko herri galdeketa ezezkoa nagusitu da, %98arekin

ANOETA Erroldaren %40ak hartu zuen parte, 470 lagun; bultzatzaileek balorazio «positiboa» egin dute 6

Guardia zibilen kontrako eraso salatzeak elkarretaratzeak egin dituzte

TOLOSALDEA Eudelek eta Eusko Jaurlaritzak erakundeetan batzera deitu zituen herritarrak 6

MEREZI DUEN EGUNA

Euskara » Festa giroan ospatu zuten atzo hainbat herri eta ikastetxetan Euskararen Nazioarteko Eguna: ilusioa eta gogoia ikusi zen txoko guztietan.

ERREDAKZIOA

Euskarak merezi duen eguna ospatu zuten atzo: Euskararen Nazioarteko Eguna, hain zuzen. Ikastetxe gehienetan ospatu zuten jai giroan, eta denetan euskara izan zen protagonista.

Amezketako Zumadi eskolan musika zuzenean eta abesti zaharrek ino ederki pasa zuten arratsaldea. Guraso eta herritarren konpainian izan ziren. *Markesaren alabarekin*, edota txikiagokoen esaldi bitxiaren barre batzuk egin zituzten ikasleek.

Hirukiden eta Orixen jai

Hirukiden, ekintza asko egin dituzte. *Begira nazazu euskaraz* lelopean, adin guztietako ikasleek jorrratu zuten gaia. Txikienek Xabil maskota marraztu eta margotu zuten, abestu eta eskulanak egin zituzten, besteak beste.

LHn pasabideak girotu, txistekak, bertsoak landu, trikitilariekin

abestu, antzerkiak, irratirako grabaketak... egin zituzten. DBH, Baxilergo eta Zikloan, berriz, Xabi Paya, Oihane Perea, Etxabe, Susette gehienetan ospatu zuten jai giroan, eta denetan euskara izan zen protagonista.

Orixen institutuko ikasleek dantza, akordeoia jo eta abestu egin zuten. Bestetik Himalaiara eginko espedizioak, Asier Izagirrekin, eta Josu Iztuetaren bidaiei buruzko hitzaldia izan zen.

Mantto eta Argitxo

Samaniego Euskararen Nazioarteko Egunean Mantto maskotaren urtebetetzea ere ospatu zuten. 104 urte bete ditu eta urte hauetan guztietan zintzo jardun du euskararen eta ingurumenaren alde.

Laskorainen Argitxoren urtebetetzea ospatu zuten Euskararen



Amezketan jende asko egon zen Zumadi eskolako ikasleen emanaldia ikusteko. N. URBIZU

Egunean: agi denez, 121 urte bete ditu Uzturren bizi den gure lagunak. «Badakigu, euskarak egiten gaituela euskaldun; badakigu, euskarak eman, ematen eta emango dizkiola izena eta izana Euskal Herriari, euskararen herriari» diote Laskorainen.

Goizetik festa giroa izan zuten: pregoia, Argitxo irratsaioa egin eta entzun, euskararen aldeko abestiak abestu, ipuin-kontaketak, euskarazko filmak ikusi, paxintxiak jan...

Eskuliburua atzerritarrentzat

Tolosaldea Garatzenek Galtzaundi eta Eregirekin batera euskaraz hitz egiteko eskuliburua bat argitaratu du. Honekin Tolosaldean bizi diren atzerritarren artean euskararen erabilera sustatu nahi dute. Ideia Tolosan 2003tik martxan dagoen inmigrazio lan mahaian sortu zen. Lan mahai honetan, inmigrazioa lan mundua, hezkuntza eta formakuntza inguruko hainbat ordezkari hartzen dute parte eta Tolosaldeko 2007-2009 inmigra-

zio planaren barruan kokatzen da. Liburuxka honetan eguneroko esaldiak jasotzen dira: agurrak, lan mundua, osasuna, garraioa... Horrekin batera baliagarria izan daitekeen hiztegitxoa jaso dute 8 hizkuntzatan.

Interesatuek Tolosaldea Garatzenen, Galtzaundin, Larramendi kaleko etorkinen aldeko elkarteetan (Sos Arrazakeria, Ereite eta Jatorkin) edo eskualdeko udaletxeetan jaso ahal izango dute hurrengo astetik aurrera.



Hirukiden, besteen artean txalaparta jo zuten. HITZA



Orixen institutuko ikasle batzuk dantzatzen (Oinkari dantza taldekoak). HITZA



Laskorainen jaialdia egin zuten ere, euskara munduan hizpide. HITZA



Leidorren Ereitek antolatutako emanaldia. ESTI EZEIZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Laskorain ikastolak jaialdi batean irudikatu ditu 40 urteak

Kultura » Ikastolaren urteurren ospakizunak jendez bete zuen Usabal kiroldegia; ordu eta erdiko ikuskizuna prestatu zuten

ERREDAKZIOA

Berrogei emozio urte izendatu zuen Tolosako Laskorain ikastolak bere 40. urteurrena ospatzeko pasa den abenduaren lehen Usabal kiroldegian antolatutako jaialdi nagusia. Hala, emozioa izan zen bertaratu zirenek ordu eta erdi luzez bizi izan zuten sentipen nagusia. Goizetik hasi ziren prestatuta lanak kiroldegian, oholtzaz, argiztapena, soinua eta ikusentzunezko baliabideak prestatu behar baitziren. Teknikoekin batera gurasoak eta langileak auzolanean aritu ziren. Arratsaldeko entsegu orokorra egin ondoren 19:00etan puntualki hasi zen jaialdia.

Protagonistak oholtzaz gainean

Ikuskizunak ikastolaren 40 urteak irudikatu zituen agertokian, antzerki-esketxen, pantaila erraldoko bideoen eta musikaren bidez. Bidean 40 urte horietako protagonista nagusiak eszenatokitik igaro ziren: aurrena ikastolaren sortzaileak, ondoren zuzendari, langile, irakasle eta ikasleak.

Tolosako ikastolaren sortzaileen artean euskalgintzan oso eza-gunak diren izenak atzeman daitezke: Antonio Labaien, Juanito Garmendia, Juanito Uri, Asintxo Ondarzal eta beste hainbat 1967an ikastola martxan jarri zuten guraso taldekoak baitziren. Horietako batzuk agertokitik pasatu ziren.

Gurasoen lan handia

Partaide guztiak iraganeko eta gaurko ikasle, guraso, eta irakasleak izan dira. Arantxa Iturbe eta Kike Amonarriz izan ziren gidogile. Lehena ikastolako ikasle ohi eta gurasoa da eta bigarrena lehendakaria. Baita jaialdia antolatzen

aritu diren profesional taldea ere. Gurasoek lan izugarria egin zuten jaialdia prestatzen. Lehendakariak aparte profesional asko da heldabideetan edo ikuskizunen arloan lan egiten dutenak eta horrek erraztu zituen antolaketa lanak; bestalde ikastolan Joxemi Saizar izan da guztia koordinatzen.

Hiru baliabide artistiko nahasi ziren. Agertokia bitan banatu eta alde batean hiru musikari finko jarri ziren, emanaldi osoa musikaz girtzen: Juantxo Zeberio, Josu Gabellanes eta Jon Arruebarrena; lehena guraso eta ikasle ohiak da eta beste biak ikasle ohiak. Agertokiarren zati nagusian berriz, gela bat irudikatu zen eta bertan esketx laburren bidez Nekane Karrera irakasleak eta sei ikasle, ikastolako zenbait uneren berri eman zuten. Erik Probanzak eta Asier Unsainek humorezko elkarrizketa eszenaratu zuten. Pantaila handi batean, bestalde, sortzaileei eta langileei egin zaizkien elkarrizketak, argazki zaharrak eta beste hainbat gauza proiektatu ziren.

Musikaren txoko horretatik hainbat musikari pasatu zen, hala nola Ubeda anaiak, Jone bakarlarria, Laskorain Abesbatza, Idoia Iraola kantaria, Katixa Perea eta bere dantza taldea, eta kanpoko gonbidatu gisa Natxo de Felipe.

Ikastolaren historiari lotutako ikuskizuna izan zen, audiobisuala, musika eta antzerkia txandakatu. Hiru osagarri horiekin batea ohol-tzatik pasatu ziren protagonistek ere berotasun handia eman zioten jaialdiari; eta ikusle goaren partaidetza erabatekoa izan zen. Unerik hunkigarriena agian bukaerako kantua izan zen. Oholtza gainean arestian aipatutako protagonistek eta parte-hartzaile guztiek publikoarekin batera Xabier Telleriak idatzitako bertsoak elkarrekin abestu zituzten, Tolosako Habaneraren doinuaz.

Laskorainek jaialdira joan zirenei, ikastola osatzen duten guztiei eta Tolosari, jaso duen harrera beroa «bihotzez» eskertu nahi die.



Musika eta dantza ikuskizunak izan ziren protagonista atzoko jaialdi jendetsuan. HITZA

HAU GAZTERIA...!
ESATEN ZIGUTEN ADINEKOAK

ORAIN GU GARA ADINEKOAK
ETA GAZTEAK...
GAZTE DIRA*

JAKINA

*Gipuzkoan 50.000 gaztek baino gehiagok lanpostu bat dute

Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa
 Goiko Politikako Departamentua
 Departamento de Política Social



Natxo de Felipe musikaria izan zen ekitaldiko gonbidatu berezia. HITZA



Durango Lantako Erakusteko atontzen eritu dira laguntzaileak; biharko guztia prestatu izango da azokari hasiera emateko. HITZA

AURTEN UMOREA ARDATZ

Tolosalde-Leitzaldea ■ Eskualdeko idazle eta abeslariak euren lanak aurkezteko dituzte Durango Euskal Liburu eta Diskoen Azokan

dena, Jone abeslari anoetarren *Kateak* eta Deabruak Teilatzen talde tolosararen 1973 diskoak aurkezteko.

Arduradunek azpimarratu dituzten ekitaldiak
Arduradunek azoka aurkeztu zuten egunetan bainatoki etniko inguratu zituzten. Batek, umore ardatza denoia, inguruzko ekitaldiandian Andoni Agirreomezkora Voyu sementatza sioiko aurkezlearen parte hartzea nabarmendu zuen. Egitarauan, bestalde, bi espreinaditako azken emanaldi bat aurreratu zuten. Oromenaren lupo Pin maitasun berri eta Unai Elkortzag prestatu dituzten bertso-musikatuak ikuskitzen bertu izango da Horrez gain, Somerri jaunaren istorio antzezlanarekin Durango estrainatuko Txalo Produzkoak.

Maiatz eta Iparralde
Durango Argizalola sarria Maiatz elkartean emango diote aurtun, 25 urte bete ditua idazlariek eta 1982. urtean lehen zenbakiarekin Azokara etorri zirenetik, urte-urte no izan da idazlariek auzoaren ezagutzeko aukera. Horrez gain, Ipar Euskal Herrian euskararen eta literatura gaitzazko egindako ekarpenak ere gonaitatu nahit dituzte Gerediaga Elkarteak 2007 Durango Argizalola Maiatzean emanda.

Iparraldeak, gainera, protagonismo berezia izango du aurtengo Durango Euskal Liburu eta Diskoen Azokan. Euskal Kultur Erakundearen batera, Ipar Euskal Herriko argitaletxe eta diskoetxe gehiagok etarazko aukera izango dute. Azokan bertan ere, fisikoak, elkarrekin erakutsiko dituzten erren liburu eta diskoak.

Azoka zenbakitan
Azokan izango diren argitaletxe, elkarre, diskoetxe eta erakundeen kopurua 161.000a da eta 317 standetan banatuko dira. Horietako 14 erakusmahai teknologia berrien gaitzako izango dira. Partideen artean 19 lehenengo izango dira Durango Azokan. Bi eskuak ditako 12 idazlek aurkezuko dute euren lana. Guztira 554 lan aurkezuko dituzte.

Haur Literatura Arotza
Aurreko urteetan baino Haur Literatur Aroa dinamikoagoa prestatu dute Gerediaga eta Berbaro Elkarteek. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Eusko Fundazioa eta BBK Fundazioaren babeserkin, 180 metroko lekuetan liburu artean jolasteko eta liburuak lasa begiratzeko aukera izango dute gazteok.

ERREDUKZIOA

«Umorea erekin» helduko diote aurtengo Durango Euskal Liburu eta Diskoen Azokan 42. edizioari. Guztira 554 bertan izango dira azokak. Horietatik, 27 Tolosaldeko eta Leitzaldeko idazleek idaztakoak izango dira. Diskoen aurkezpenetan ere izango dira eskualdeko ordezkariak, bi aurkezpen bertuetan.

Hala, bihar hasi eta bitan 9ta arte izango dute aukera eskualdeko Durango Lantako Erakusteko atontzen eritu dira laguntzaileak, biharko guztia prestatu izango da azokari hasiera emateko. HITZA

HITZA ere Durango Azokan

Hedabideak ■ Lehen aldiz erakusmahai izango du HITZAk bihar zabalduko den Durango Euskal Liburu eta Disko Azokan

zazpi eskualdean, egunero herri informazioarekin osatutako ezarazko egunkaria argitaratzeaz gain, beste hainbat lan ere argitaratu dituzte HITZek, eta horiek erakusteko biguneko izango da Durango Azokan HITZak izango dituen erakusmahai. Turisismo Gidak, eskualdeko Ostalaritza Gidak, estropadak buruzko libururak, Gabon Kantak, egungoak eta beste ere, *Lea-Arribai eta Murrakulo* idazlearen ipuinekin osatutako *Ametsetarako hitzak* liburua.

Ametsetarako hitzak ■ *Liburu*
Dena dela, *Lea-Arribai eta Murrakulo* hitzak egunkariaren eguna ekonomikoari aurre egiteko eskualde hartako idazleen eta marrazkilarien laguntzarekin argitaratuko *Ametsetarako hitzak* liburua.

Barrenkalea, 73
Aurtun, beraz, Ametsetarako hitzak liburua, 2008ko egungoak, eta HITZek plazaratuko beste hainbat argitaletxe esku irazi izango dira Durango Azokan.

Azoka barruan, Barrenkaleko 73 zenbakian erakusmahai da HITZaren.

EGITARAUA

Abenduak 5, bihar

- **11:00.** San Bernabeketa. Esko Jaurlaritzako Irakurri 2007 lan-painako argazki lehiaketa.
- **12:30.** DJ erakustaldi-partehartzeak Ocaalkoff-en eskutik.
- **16:30.** Mahaingurua: Libururen Legea. Partaideak: Aitor Esteban eta Jorge Gimenez. Ekartegian.
- **19:00.** Inaugurazio ofiziala: Sarriera ekitaldia Andoni Agirreomezkoren eskutik.
- **Egun guztian.** Zokilut Azokan erakusketak Ekartegian.

Abenduak 6, etzi

- **11:00.** Aurkezpena: Pizkolok, ur sakonetako bokaldefak dokumendua. Biografiak ekologeteak eta Patxi Usobiaga eta Iratxe Andueza-kalazaleak. Ekartegian.
- **12:30.** Oromenaren lupo. Fredi, Xabier eta Inosa Pinairek aurrerabek eta Unai Elkortzag egindako

- bertso musikatuaren ikuskin berria. Ekartegian.
- **16:00.** Aurkezpena: Ametsetarako hitzak. HITZA Ekartegian.
- **17:00.** Inkomunikazio ikastaroa. Zazpiak Batman kolektiboaren (Kike Amorrantz, Asisko Urmeneta eta Arntton Olariaga) azken emanaldia. Ekartegian.
- **18:00.** Mahaingurua: Egunerikoa-ren auzia. Ekartegian.
- **19:00.** Aurkezpena: Bilbao en sus Documentos (1544-1604) eta El castellano en Bilbao en el siglo XVIII liburua. Sara Gomez Seibane, Carmen Ibañeta eta Enriqueta Sesmero Culebras. Ekartegian.
- **19:30.** Haino eta austriak DVD. Egungo bideoak. Ekartegian.
- **20:30.** Antzerki eta enaldia: Somerri jaunaren istorioak. Txalo Produzkoak. San Agustín Kultur Gunean.
- **Egun guztian.** Zokilut Azokan erakusketak Ekartegian.

Abenduak 7, ostirala

- **11:15.** Aurkezpena: Aierriaren berri izanulako euskal liburuak. Raul Zelek eta Petra Elser-en eskutik. Bost Kultura literatur agentzia. Ekartegian.
- **12:00.** Film emanaldia: *Kutsidazu* bideoa. Ibañeta. Ekartegian.
- **16:00.** Aurkezpena: *Ure irauki* orki diskoa. Susa eta Sar. Ekartegian.
- **17:00.** Aurkezpena: *Gazte* Sound System Ekartegian.
- **17:30.** Aurkezpena: *Desafectos*. Francoren eskulok Piriniretan eta 13M Atoka. El Pozo, Santa Eugenia, Donostia. DVD-ak. Euzko Bideoak. Ekartegian.
- **18:45.** Menduurren ekitaldiak: *Revista Internacional de Estudios Vascos* aldizkaria. Eusko Ikaskuntza. Ekartegian.
- **20:30.** Euskal Greatista Hits (Gaua Andra Marko elizpean). Durango Lantako Musika Taldearen eskutik.

- **20:30.** Aurkezpena: *Katamalo* diskoa. Bihutz Bakartien Kluba. San Agustín Kultur Gunean.
- **Egun guztian.** Zokilut Azokan erakusketak Ekartegian.

Abenduak 8, larunbata

- **11:00.** Aurkezpena: *Defendiendu* Pisis. Eren. Ekartegian.
- **11:30.** Aurkezpena: *Euskara* madre del castellano y de los romances liburuak. Euskararen Jatorria Kultur Elkarteak. Ekartegian.
- **12:00.** Geografiak hizlari. Tamar Ebraldize. Nugarra Taiklauri eta David Turashvili. 2007ko Durango Azokako gonibidok. Ekartegian.
- **15:45.** 15.45 Aurkezpena: *Iparraldeko* auzia. Iparretarak.
- **18:30.** Mahaingurua. Hemen jaungoikoan errebare. Partaideak: Imanol Lazkao eta Pello Zabala. Ekartegian.
- **20:30.** VII. Gauaren Argi. Maiatz

- aldokari-Elkarteani 2007 Durango argizalola omen-saria emango da Gerediaga Elkarteak. San Agustín Kultur Gunean.
 - **Egun guztian.** Zokilut Azokan erakusketak Ekartegian.
- Abenduak 9, igandea**
- **11:30.** Aurkezpena: *Antzerki* 75 urte gero. Eitor Ostoa. Ekartegian.
 - **12:00.** Aurkezpena: *Euskal Herri* berri erakuntza estatutal liburuak. Lemuria Kultur Elkarteak. Ekartegian.
 - **12:30.** Tak zazpi Gratien Adema Zilibity (1828-1907) euskal idazle eta olerkariaren mendeurren dela eta Pierres Xarriton-ek emandako hitzaldia.
 - **16:00.** Aurkezpena: *Bi kultura*. Elhuyar. Ekartegian.
 - **19:30.** Amara ekitaldia: *Olerkeren bitxia*.
 - **Egun guztian.** Zokilut Azokan erakusketak Ekartegian.



Tolosan bizi den Joan Ormazabal idazle zuegarra. HITZA



Patxi Perurena idazle leiztarria. NABARRA GAZTEA

Jone abeslari anoetarra. ONE

Mikel Olano idazlea. A. GAZTEA

ESKUALDEKO AURKEZPENAK

- **Lizurruak**
■ **Mikel Olano.** Azukloa belagailan (Kutxa Fundazioa, Ipin liburu).
- **Luis Harenburu Altuna.** Inkomunikazioa (Hita, Saikera, kazetaritza eta beste).
- **Patxi Perurena.** Dakiguna ikastan (Alberdania, Saikera, kazetaritza eta beste).
- **Bernardo Atzaga.** Astokien abenturak: Astokilok Arabian (Berria / Elkar. Haur eta gazte literatura).
- **Dena dela.** Lea-Arribai eta Murrakulo hitzak (egunkariaren eguna ekonomikoari aurre egiteko eskualde hartako idazleen eta marrazkilarien laguntzarekin argitaratuko Ametsetarako hitzak liburua).
- **Bernardo Atzaga.** Astokien abenturak: *Trasmitaniko botan* (Berria / Elkar. Haur eta gazte literatura).
- **Bernardo Atzaga.** Astokien abenturak: *Astokilok Finisterra* (Berria / Elkar. Haur eta gazte literatura).

- (Berria / Elkar. Haur eta gazte literatura).
- **Karlos Linazasoro.** Etzi (Haur eta gazte literatura).
- **Josuarri Hurrelalde.** Olibo, Risky, Topo, Susey eta Mohamed (Elkar. Haur eta gazte literatura).
- **Joxemari Hurrelalde.** Sorriago bidean (Itzulpentak. Haur eta gazte literatura).
- **Juan Krutigerribide.** Adu Jonak (Aizkorri. Haur eta gazte literatura).
- **Juan Krutigerribide.** Boga dako ibai (Erein. Haur eta gazte literatura).
- **Joan Ormazabal.** Ilundrak eta argiuridena (Elkar. Haur eta gazte literatura).

- **Joan Ormazabal.** Puzpuzaren bidetik (Elkar. Haur eta gazte literatura).
- **Iñaki Zubeldia.** Bosos suta (Erein. Haur eta gazte literatura).
- **Iñaki Zubeldia.** Euskaldun bot Marlen (Itzulpentak. Haur eta gazte literatura).
- **Iñaki Zubeldia.** Nagodu (Gero-mensajero. Haur eta gazte literatura).
- **Iñaki Zubeldia.** Xiripin fontamotaxa (Itzulpentak. Haur eta gazte literatura).
- **Xabier Olarra.** Bill S. Ballinger egilearen ligozpiren emateak (Gisela, Itzulpentak).
- **Mikel Olano.** Charles Bukowski

- egilearen Salonen seme (Elkar. Itzulpentak).
 - **Antton Olano.** Wilkie Collins egilearen *Ilang-Ilang* (Alberdania Elkarteak literatura unibertsaria, Itzulpentak).
 - **Maria Garikano.** Robert Louis Stevenson egilearen *Albortz* (Elkar. Itzulpentak).
 - **Antton Olano.** Pasqual Aizkorri egilearen *Balaitza* eta *oino bot* (Elkar. Itzulpentak HGL).
- Diskoak**
- **Jone.** Kiteak. Bonberenea Elkartzak.
 - **Deabruak Teilatzen.** 1972. Bonberenea Elkartzak.

AHTri buruzko herri galdeketa ezezkoa nagusitu da, %98arekin

Anoeta » Guztira 470 lagunek parte hartu zuten, erroldaren %40ak; balantze «oso positiboa» egin dute bultzatzaileek

ERREDAKZIOA

AHTri buruz Anoetan egindako herri galdeketa, ezezkoak nagusitasunez irabazi zuen, botoen %98,3ak lortuz. Guztira 470 lagunek hartu zuten parte galdeketa, erroldaren %40ak inguru. Herri galdeketa bultzatu duten eragileek «oso positibotzat» jo dute: «Denbora honetan guztian Anoetan horrenbesteko txikizioa eragingo duen proiektuaren afera mahai gaineratzea lortu dugu. Antolatu ditugun ekimenetan herritarren parte-hartzea zabaldu izan da».

Herri galdeketa prozesu guztian zehar egindako lana, «herritarrei informatzea, eztabaida sortzea eta herri galdeketa», AHTren proiektua bultzatzen duten erakundeek «burutu beharrekoa zen» azaldu dute, «herri honentzat dioten bezain garrantzitsua baldin bada behintzat». Proiektu horren inguruan «dirudienez herritarrok horren inguruan iritzirik emateko eskubiderik ez dugu», azaldu dute eta gaineratu herri galdeketa izan den «parte-hartzeak argi erakusten du herritarrek beraien iritzia eman nahi dutela».

AHTren inguruko galdeketa iritzia eman nahi zuten guztiak ez direla joan azaldu dute, «besteak beste azken asteetan eman diren



Herri galdeketa bultzatzaileek atzo prentsaurrekoa eman zuten. I. GARCIA



Igandean egindako herri galdeketa une bat. HITZA

kriminalizazio eta debekuak medio». Igandeko herri galdeketa Anoetako herritarrek inoiz egin duten «mobilizaziorik handiena» izan dela diote.

«Urrats garrantzitsua»

Galdeketa «proiektu txikitzaile haur geratzearen bidean urrats garrantzitsua» izan dela, baina ez azkena, azaldu dute. «Borroka honetan aurrera jarraitzeko» indarrak eman zizkiela «igandean herritarrengandik jasotako babes zabalak», diote. Bide batez, hilaren

15ean Arrasaten egingo den manifestazioan parte hartzeko deia zabaldu zuten.

Bestalde, «gogor» salatu dute herriari iritzia ekatu nahi izateagatik Anoetako Udalak «jasan duen mehatxua». Horri lotuta EAJren jarrera salatu dute. Batetik, Ibarretxe «erabakitze eskubidea Espainian aldarrikatzen ari den bitartean, ez du bermatzen bera agintari den lurraldean herritarrok proiektu baten inguruan iritzia emateko eskubidea». Bestetik, Anoetako EAJk «gezurra medio gaia-

ri garrantzia kendu eta herritarrek engainatzeko egin duen saiakera» salatu dute.

Igandean lortutako emaitzak erakunde publikoetara bideratuko dituzte, batetik Anoetako Udalari eta bestetik «proiektu hau inposatu nahi duten erakundeei, besteak beste Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Aldundiari».

EAE: «Eragileei eskerrak»

Anoetako EAE-ANV taldeak herri galdeketa «guztiz egokia» izan dela azaldu du, «gauzak joan diren bezala», Luesmaren errekursoa aipatuz, galdeketa burutu izana «meritu handiko» ariketa izan dela azalduz. Galdeketa bideratu duen eragile guztiak eskertu dituzte, «informazio ugari zabaldu dutelako, gauzak modu egokian bideratzen jakin dutelako, jendea bere iritzia azaltzeko aukera eman diotelako eta proiektu ilun honen aurrean gauzak argitu dituztelako». Prozesu «guztiz demokratikoa izan dela» ziur daudela gaineratu dute. Herritarrek ere zoriondu dituzte, «sekulako heldutasun demokratikoa erakutsi baitute».

Bestalde, «Espainiak udal autonomia erasotu» egin duela salatu du EAEk. «Herriko ekonomian, ingurumenean, gizartean... eraso larriak izango dituen proiektu honen aurrean Udalaren ardura baita eraso horiek izan dezaketen eragine buruzko informazioa herritarrei helaraztea». Herritarren artean «estatuak beldurra zabaldu» duela diote.

Laburrak

Elkarretaratzeak instituzioen atarietan

POLITIKA » Eusko Jaurlaritzak, Eudelek eta FEMP Espainiako Udal eta Probintzien elkarteak herritarrek deitu zituzten atzo Hego Eusko Herriko instituzioen atarietan, ETAK ustez larunbatean guardia zibil bat hil eta beste bat oso larri zauritu izana salatzeak. Besteak beste, Tolosalako Udalak bat egin zuten elkarretaratzearekin.

'18/98 auziko' atxiloketak salatzeak elkarretaratzea

AMEZKETA » Gaur, 20:00etan, elkarretaratzea egingo dute Ameztako plazan joan den ostiralean agindutako 18/98 auziko inputuaten atxiloketak salatzeak.

Dantza-sokaren inguruko bilera bihar udaletxean

ANOETA » Dantza-soka eguna antolatzeak eta entsegu egunak finantzatzeko bilera egingo dute bihar, 18:00etan, udaletxean. Udaltzaren Batzordeak dei egiten die herritarrei parte hartzeko ekimen horretan.

Gazteentzako 100 abono geratzen dira salgai

TOLOSA » Zine Festarako gazteen abonoak bakarrik geratzen dira salgai. Guztira 100 sarrera dira gelditzen direnak gauko saioetarako. Bost film ikusteko aukera izango dute abono horrekin, 4 euroren truke. Nahi dutenek gaur eta bihar, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara erosi ahal izango dituzte Kultur Etxeko Gazte Topagunean.

Lagun bat atxilotuta «drogak hartzen ari zela»

TOLOSA » Tolosalako Ertzaintzeko agenteek J.A.L.A. (38 urte) atxilotu dute igande goizaldean Amarozen auzoan, atxilotua auto baten barruan harrapatu zuten «drogak hartzen ari zela». Agenteek hainbat xiringa, pilula eta Tranxilium pote bat aurkitu zituzten.

Bi lagun atxilotuta kobre lapurtzea leporatuta

VILLABONA » Tolosalako Ertzaintzeko agenteek bi gizonetako atxilotu zituzten lagun bat arratsaldean Villabonan, enpresa batean zortzi kilo kobre lapurtzea leporatuta. Ertzaintzaren arabera, lapurrek lan-tegiko leihoa borxatu zuten eta lekuko batek udaltzaingoa ohartarazi zuten. Udaltzainek, Ertzaintzaren patruila batekin, «susmagarriak aurkitu eta atxilotu zituzten». 31 eta 34 urteko bi gizonetako dira atxilotuak. Polizia-etxera eramán zituzten.

Finalaurreak ez du gustura utzi Mendiluze

G-puntua » Irurako bertsolaria finalean izango da; Unai Muñoa ere ez zen gustura aritu Ordizian jokaturako finalaurrean

IMANOL GARCIA

Mendiluze bai, Muñoa ez. Larunbat arratsaldean jokaturako Ordiziako finalaurrean Iruran bizi den andoaindarrak finalerako txartela lortu zuen, bigarren sailkatuta. Berrobitarrak bosgarren postua lortu zuen. Mendiluzek 506,5 puntu lortu zituen, Muñoak 457,5. Mendiluze eta Jesus Mari Irazu izango dira, beraz, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren Donostiako finalean eskualdeko ordezkariak. Hilaren 16an Illumben jokaturako da finalea.

Ez da oso gustura gelditu Mendiluze Ordiziako saioarekin.

«Gauza batzuk ondo egin nituen eta beste batzuk gaizki». Orokorean saioa «polita» izan zela dio Iruran bizi den bertsolaria. Bisaio egin ditu Mendiluzek Txapelketan eta bietan 500 puntutik gora lortu ditu.

Bere helburua «bertsotan gustura» aritzea da eta ez du txapelaren pentsatzen: «Bertsotan ondo egingero gustura geldituko naiz. Bertsotan gustura aritu ez eta txapela lortu baino, nahiago dut etxean gelditzea».

«Final erakargarria»

Finalean aurkari gogorrena zein izango den galdetzean, aurretik esandakoari heltzen dio Mendiluzek: «Nik ahal dudana onena ematera joango naiz. Nola txapela ez dudana helburu, nire aurkari gogorrena nire burua izango da».

Finaleko saioa erakargarria izango dela zehazten du: «Bertso

estilo ezberdinak izango dira, batzuk txapelketetarako ustez egokiak ez direnak. Horrek bai kanpora begira, bai finalean parte hartuko dugunoi begira erakargarria egiten du saioa».

«Zapore mikatza»

Unai Muñoa berrobitarra ere ez zen gustura atera Ordiziako finalurretik. «Oso lotuta sentitu nintzen, nire buruarekin borrokan. Ez nuen lortu benetan eman dezakdana ematen».

Beste bi saioetan ez bezala, bere %100tik urrutu egon zen Muñoa. «Ez dakit zer faktorek eragingo zuten hori. Askotan irabazteko eta gutxi galtzeko. Presiorik guztiarena nuen saioa zen, baina ez nuen atera barruan dudana guztia». Aurreko astean urduri pasatu zuena dio berrobitarrak: «Buelta ematen ari nintzen buruari, nolakanatatu nahi nuen pentsatzen».



Abel Barriola joan den urteko lau t'erdiko txapelketan Titin III.ari irabazi zion norgehiagokan. JAGOBA MANTEROLA / AP

Txapelak ihes egin dio Barriolari, beste behin

Leitza » Herenegungo Ogetako porrotarekin Abel Barriolak jokatuak bost finaletatik galtzen duen laugarrena da

NAIARA GARZIA

Igandean Barriolari beste behin lau t'erdiko txapelak ihes egin zion, leitzarrak ezin izan baitziren Trizioko pilotariaren jokoa irarritu eta 22-15eko emaitzarekin amaitu zuten. Hasieran Titin III.aren jokoak hagitx gogorra izan zen arren, Barriolak partida ere bere esku izan zuen, nahiz eta azkeneko zatian egindako hiru akatsek porrota ekarri zioten.

«Titin III.ari dena ongi ateratzen zaien», zioen leitzarrak partida amaitu ondoren. «Hasieratik era-

sora ateratzen da eta anguloak oso ongi harrapatu ditu. Gero partidari buelta eman diot, baina pare bat huts egin ditut eta partida hori joan zait». Abel Barriolak Titin III.ak txapela merezi zuela ere esan zuen, baina bere tristura ere adierazi zuen. «Titinek txapela merezi du, bera izan da onena, baina nik uste irabazten duten pilotari guztiek merezi dutela. Galtzeak ere pena eman ditu».

Galdutako laugarren txapela

Abel Barriolak urte hauetan jokatu dituen bost finaletatik lau galdu ditu (2002an buruz buruko txapela irabazi zuen, Belokiren aurka) eta horren inguruan ere gogoa egin zuen. «Oraindik ere zer zuzendua badago». Halere, igandean finala galdu arren, goi-mailako pilotariaren artean dagoela zalantza-

rik ez dago. «Partida ez da oso pletatueta izan, eta hori berari ongi etorri zaio», esan zuen leitzarrak.

Hiru zatitako finala

Partidak hiru zati izan zituen, Titinek gogor ekin baitzuten finalari eta 6 tanto egin zituen jarraian. Ondoren leitzarrak 3 tanto jarraian egin zituen arren, Titinek tartea areagotu zuen, 12 tantotako tartea lortuz (15-3). 16-5 zihoztela, ordea, Barriolak 8 tanto egin zituen jarraian.

Txapela orduan leitzarrak ez zuen hain urrun, aurkariak 3 tanto besterik ez baitzizkion ateratzen, baina azkeneko zatian egindako zenbait huts egiteren ondorioz partida galdu zuen. Titinek Barriolari egindako azkeneko tantoa izan zen telebistako kazetariarentzat tantorik hobereana.



Aurrerako jokariak duela pare bat aste jokatuak partida batean. A. OTEZABAL

Aurrerak San Cristobal taldearen aurka 2-1 galdu du

Leitza » Igande goizean San Cristobalen aurka jokatuak partida galdu ondoren, bigarren postua galdu du Aurrerak

N. GARZIA

Aurrerak herenegun jokatuak partida 11:30ean jokatu behar izan zuen lau t'erdiko finalarengatik. Leitzarrak 2-1 galdu zuten, eta lau astez bigarren postuan egon ondoren, sailkapenean atzera egin dute leitzarrak. «Orain laugarren edo bostgarren joango gara», dio Jose Luis Arrizurieta entrenatzaileak.

Arrizurieta partida deskribatu du. «Norgehiagoka oso parekatua izan da. Akatsaren bat-edo egin genuen eta horrek erabaki zuen partida. 2-1 galdu genuen baina berdinketa izan behar zuen nire ustez». Dani Alvarez izan zen Aurreraren aldetik gola sartu zuena.

Datorren asteburuan atsedean hartuko dute leitzarrak eta lehenengo fasea amaitzeko bi partida gelditzen zaizkie, Pamplona eta Gares taldeen aurka. «Hauek zuzenbidez irabazi egin beharko genituzke, baina talde guztiak berdintsu gaude. Gainera, jokariak hasierako txispa hori galtzen ari dira, ez daude hain fresko».

Abenduan zehar ez da film eskaintzarik izanen herriko zineman

Leitza » Makina izurratuta dagoela azaldu dute arduradunek, eta hilabete honetan zehar konponduko dutela

Hori dela eta, abenduan zehar aurten ez da film eskaintzarik izanen Leitzako zineman. Printzipioz, arduradunek adierazi dutenez, urtarrilean berriro martxan izanen da.

Hauek dira azaroan zehar eskaini dituzten filmak: *Eutsi*, *Perez sagutxo*, *El violín*, *Bajo las estrellas* eta *Kutxidazu bidea*, *Ixabel*.

N. GARZIA

Azaroaren lehen eman zitzaion hasiera aurtengo zinema denboraldiari. Hilabete osoan zehar 5 film eskaini dituzte, horietako bat bereziki hurrei zuzendua, baina abenduan zinema denboraldia etengo dute, arazo teknikoak direla eta.

Leitzako zineko arduradunek azaldu dutenez, «makinak konpontzeko beharra du eta teknikariren bat etorriko da horretarako».

@ Eztabaida. Espainiako Auzitegi Nazionalak 18/98 auziko 46 lagun atxilotzeko agindua eman du. Eman zure iritzia:

www.tolosaldeko-hitza.info

» ABEL BARRIOLAREN IBILBIDEA PILOTA MUNDUAN

- **1.** 2002ko ekainaren 23a. Buruz buruko txapelketa. Barriola 22-Beloki 3.
- **2.** 2002ko abenduaren 29a, lau t'erdiko finala galdu zuen Olaizola II.aren aurka (22-13).
- **3.** 2003ko urtarrila, enpresaz aldatu eta Asperekin hasi zen.
- **4.** 2003a. Eskuetako arazoan hasiera.
- **5.** 2003ko txapelketa. Binakoan finalerdietara arte, Agirirerkin. Maiatzaren 3a, buruz burukoaren finalerdietarako ligaxka: Olaizola II.a 22-Barriola 2. Azaroaren 3an, Capellane kanporatu zuen lau t'erdikoan (22-20).
- **6.** 2004ko apirilaren 9a, buruz burukoaren final-laurdenak jokatu

zituen ondorengo emaitzarekin: Eugi 22-Barriola 4.

■ **7.** 2004ko abenduaren 26a.

Urte eta erdi latza pasa eta gero, lau t'erdiko finalean. Olaizola II.a 22-Barriola 8.

■ **8.** 2005eko urtarrila, Binakako txapelketako final-laurdenak. Behatza hozten zitzaioela nabaritzen hasi zen.

■ **9.** 2005eko apirilaren 15a, gihar bikiko mina zela-eta ez zuen buuz buruko jokatu.

■ **10.** 2005eko abuztuaren 2a. Eskuan ebakuntza egin zioten, eta bost tokitatik ireki zioten.

■ **11.** 2006ko otsailaren 13a, jaialdietara itzulara.

■ **12.** 2006ko apirilaren 4a, buruz

buruko txapelketa, Leiza 22-Barriola 7.

■ **13.** 2006ko abuztu-irailen Josu Irigoienekin hasi zen lanean berriz. Lau t'erdiko finalera iritsi zen, Olaizola II.ari finalerdietan irabazita (22-20).

■ **14.** 2006ko abenduaren 17a, lau t'erdiko finala galdu zuen. Mtnz de Irujo 22-Barriola 21.

■ **15.** 2007ko otsailaren 27a, Asperekin berriro zuen, urtebetez.

■ **16.** 2007ko ekainaren 17an, buruz buruko finala galdu zuen Olaizola II.aren aurka.

■ **17.** 2007ko irailen Asperekin kontratua luzatu zuen.

■ **18.** Herenegun, lau t'erdiko finala galdu zuen Titinen aurka.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Zumardi Txikiaren parean. (Santa Klara). 2 logela, sukalde handia, ganbara eta berogailuak. Hormigoizkoa. Uzturre aldera bistak. 665 70 86 35.

■ **Egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.



13°
9°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EURIA
BEROENA 13°
HOTZENA 8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Berrobi.** Ekintza planeko lehen-tasunak finkatzeko bilera Etxolan 19:00etan.
- **Villabona.** 56ko kintoak elkartuko dira abenduaren 8an: 12:00etan meza Jesusen Bihotza parrokiaren hildakoen alde eta 14:30ean bazkaria Sagasti berri jartetxean.
- **Villabona.** Amasako Iturri-goxo jabetzeko Jokin Zabalak sukaldaritza ikastaroa emango du Zumbeltz elkartearen abenduaren 11, 13 eta 18an, 17:30etik 19:00etara. Izen-ematea, udal txeko kultura saileko bulegoan edo 943 691655 telefonoan.

Irteerak

- **Tolosa.** Candanchura eski irteera antolatuta abenduaren 28 eta 29rako. Eski alpinoa, iraupen eskia edo mendiko eskia egiteko aukera. Informazioa eta izen-ematea, 637 830380 eta 678 732579 telefonoetan.
- **Tolosa.** Oargi mendi elkarteak Pirinioetara irteera antolatuta du datorren zubiako, abenduaren 6tik 9ra. Perdido eta Marbore mendiak igoko dituzte eta Gorizko aterpean egingo dute lo. Izen-ematea, 637 830380 telefono zenbakian
- **Villabona.** Jubilatuta elkarteak Hara (Errioxa) irteera antolatuta du abenduaren 12rako: hamaiketako Agurainen, Jimeloren likortegia bisitatu, bazkaria jubilatuta elkartearen eta Gssteiza bisita. Izen-ematea, jubilatuta elkartearen.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.
- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.



Maite Oñatibia, Itxaropena Elordi (elkarteko lehendakaria) eta Angel Vazquez atzo egindako aurkezpenaren. E. ZEIZA

Alde Zaharrak Dendak elkarteak ekimen berri bat jarri du martxan, non egun batez, lau pertsona Olentzero bilakatuko diren eta Tolosan, dendaz denda opariak bilduz ibiliko diren.

Egun batez, Olentzero bilakatuta

ESTI ZEIZA

Alde Zaharra Dendak elkarteak egitasmo berri bat jarri du martxan, *Aurtengo eguberrietan Alde Zaharra dabil Olentzero. Zuzara?* izenpean. Hala, egun batez Olentzero bilakatuko dira lau pertsona, eta honek daramatzen opari guztiak irabazi ahal izango ditu.

Bihar, Eguberrietako argiak piztearekin batera abiaraziko dute egitasmoa. Honenbestez, hilaren 26a bitartean, Alde Zaharreko dendetan erosten dutenek txartel bat jasoko dute. Orri horretan, bakoitzak bere datu pertsonalak ipini beharko ditu, eta ondoren Alde

Zaharra elkarteko saltoki guztietan jarrita dauden txartel-ontzietan sartu. Hilaren 26an zozketa egingo da, eta lau pertsona izango dira irabazleak.

Bi egun beranduago, hau da, hilaren 28an, Olentzero bilakatuko dira irabazleak. Horieta bikoiztean, auto klasiko batean, elkarte-ko dendetan barrena ibiliko dira, beraien opariak jasotzen. Gertatzen diren beste biek berdina egingo dute, baina, arratsaldean. Bakoitzak ibilbide bat egingo du, eta denda ezberdinak bisitatuko dituzte.

«Paseo» berezi hori egiteko lau ibilbide ezberdin prestatu dituzte

merkatari elkartekoek. Denetan ere, antzeko saltokiak daudelarik. Saritu bakoitza 30-40 dendatar sartuko da, eta bere oparia hartuko du hauetako bakoitzean.

Ekimena hasten den bezala, saltoki bakoitzaren eskaparatean ikusi ahal izango dute bertaratzeko direnak, denda horretatik zer eraman dezaketen, sarituak badira.

Aurtengo kanpaina bereziaren helburuetako bat «saritua Alde Zahar guztian mugitzea da». Izan ere, Itxaropena Elordi, Elkarteko Lehendakariaren esanetan, «aurteko urteetako esperientzia eta gero, nahi duguna da, irabazleak, diru guztia denda bakarrean gasta-

tu ordez, saltoki guztietan egitea». Honez gain, elkarteko komertzio guztiak eman nahi dituzte ezagutzera, «askotan, ohituragatik, inguru batzuetatik ez baikara igarore ere egiten, eta ez dakigu hor zein denda dauden».

Egitasmoaren babesle dira ere, Tolargi eta Tolosaldea IKT. Elkarteko 24 dendetan erosketa txeketak emango dizkiete irabazleei, baina gainontzekoetan opari zehatzak. Honenbestez, elkartekoek ohartzen dute, «zenbat eta erosteketa gehiago egin, orduan eta aukera handiagoa izango duzu Eguberrietan opariz betetako Olentzerorizateko».

denda

Ametsetarako hitzak

ipuin majian izkutatzen den euskal idazleen liburua... **15 €**

eskura ezazu

Durangoko Azokan,
HITZAREN postuan
(Barrenkale, 73)



LIBURUAREN
AURKEZPENA
abenduaren 6an
16:00etan
Durangoko Azokako
Elkartegian